

Lizarbe: «Euskal alderdi abertzaleek Stockholmeko sindromea dute»

PSNko idazkari nagusiak dio EHren eta EAJren proposamenek ez dutela balio

Asier Azpilikueta / Iruñea

PSNko idazkari nagusi Juan Jose Lizarbek atzo erran zuen EHren eta EAJren proposamenak Nafarroako gehiengoaren borondatek at daudela. Haren aburuz, nafarrek azken hogeitako hauteskundeetan behin eta berriro erran dute zer nahi duten.

EH-REN eta EAJ-ren proposamenak ezberdinak zirela onartzen bazuen ere, Lizarbek adierazi zuen «euskal alderdi abertzaleek, bere izaera ezberdinetan, Stockholmeko sindromea dutela, sutenaren bukaera iragarri arren hemen deus gertatu ez balitz bezala jokatzeko jarraitzen dutelako». Lizarberen iritziz, «EHren proposamenak txantxa dirudi eta EAJrena pragmatikoagoa da, baina, funtsean, biak nafarren gehiengoaren borondatek at daude».

Lizarbek «euskal nazionalismo demokratikoari» eskatu zion Lizarrako akordioaren estrategiatik aldentzeko. «Ez

da ongi atera», erran zuen. «Ez dugu zertan poztu horregatik, baina bestelako formulak aurkitu behar dira». Lizarbek adierazi zuenez, Lizarrako akordioak, batetik, hamalau hilabetetan hildakorik ez egotea erdietsi du, baina, bestetik, atzerapausoa izan da. «Lehen, batuta zegoen bloke demokratikoa», adierazi zuen. «Orain, ez. Itzuli behar dugu Ajuria Eneko eta Iruñeko paktuetako batasun demokratikora». Beste aldetik, Lizarbek eskatu zion «euskal nazionalismo ez demokratikoari» bide demokratikoen aldeko apustua egiteko.

Elkarrik Nafarroa bake



JOXE LACALLE

Juan Jose Lizarbe, PSNko idazkari nagusia, artxiboko argazki batean.

prozesuan sartzeko proposamena egin zuenean, Lizarbek proposamen hori gutxietsi zuen. Atzo, Elkarriren ahale-

gina goratu zuen, baina PSNren apustua Nafarroa bakar eta bereziaren aldekoa dela gaineratu zuen.

Alli: «UPN-PP-PSN alderdia egingen dute»

■ UPN eta PSNren arteko aurrekontu akordioari ahalik eta zuku gehien aterako diotela baieztatu zuen Juan Jose Lizarbek. «Badakit hori ez zaiela UPNko zenbaitzuei gustatzen. Badakit, halaber, CDNko batzuek nahiko luketela guk egin duguna egitea. Ez ninduke harrituko bi horien artean hauteskundeetarako halako koalizio bat sortzen ari dela ikusteak».

CDNko buru Juan Cruz Allik Lizarberen hitzei erantzuna eman zien atzo: «Aurrekontuen inguruko eztabaida egiten zen bitartean bera Kuban zegoelako bota du horrelakoa. Han bero handiegia egiten du, mojitoek gorputza girotzen dute eta horregatik etorri da burutazioez beteta».

Allik gogoratu zuen orain dauden akordio bakarrak UPN eta PSNren artekoak direla. «*Union Popular del Pueblo Socialista Navarro* alderdia sortuko dute egoera zahar hau formatzeko», zioen.